



# Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren akta

ARABAKO TEKNOLOGIA-PARKEA,  
2021EKO UZTAIAREN 6A

*Euskadi, auzolana, bien común*

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



## Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren akta

### BERTARATUAK

**Iñigo Urkullu** jauna. LEHENDAKARIA

**Pedro Azpiazu** jauna. EKONOMIA ETA OGASUNEKO SAILBURUA

**Arantxa Tapia** andrea. EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMENEO SAILBURUA

**Jokin Bildarratz** jauna. HEZKUNTZAKO SAILBURUA

**Gotzone Sagardui** andrea. OSASUNEKO SAILBURUA

**Iñaki Arriola** jauna. LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIOETAKO SAILBURUA

**Bingen Zupiria** jauna. KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKAKO SAILBURUA

**Ramiro Gonzalez** jauna. ARABAKO DIPUTATU NAGUSIA

**Unai Rementeria** jauna. BIZKAIKO AHALDUN NAGUSIA

**Markel Olano** jauna. GIPUZKOAKO DIPUTATU NAGUSIA

**Eva Ferreira** andrea. EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO ERREKTOREA

**Jose M<sup>a</sup> Gibert** jauna. DEUSTUKO UNIBERTSITATEKO ERREKTOREA

**Bixente Atxa** jauna. MONDRAGON UNIBERTSITATEKO ERREKTOREA

**Rikardo Bueno** jauna. BRTA-ko ZUZENDARIA

**Ricardo Díez Muino** jauna. DIPC-ko ZUZENDARIA

**Fernando Cossío** jauna. IKERBASQUE-ko ZUZENDARI ZIENTIFIKOA

**Manuel Salaverria** jauna. INNOBASQUE-ko PRESIDENTEA

**Alexander Artetxe** jauna. ARTECHE TALDEAREN PRESIDENTE ETA ZUZENDARI DELEGATUA

**Pello Rodriguez** jauna. DANOBATGroup-eko ZUZENDARI OROKORRA

**Mikel Barandiaran** jauna. DOMINION GLOBAL-eko ZUZENDARI DELEGATUA

**Francisco Quintanilla Guerra** jauna. FAES FARMA-ko ZUZENDARI OROKORRA

**Juan Ignacio Pérez** jauna. JAKIUNDE-ko PRESIDENTEA

**Cristina Uriarte Toledo** andrea. ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZARAKO KOMISIONATUA

# Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren akta

## 0. Ongietorria eta hasierako agurra.

**Lehendakariak** bertaratutakoak agurtu ditu, eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren legegintzaldi honetako bigarren bilerarako ongietorria eman die.

## 1. Aurreko akta irakurtzea eta onestea.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluak azken bileraren –2021eko otsailaren 16an egindakoaren– akta onetsi du.

## 2. Bileraren nondik norakoak aurkeztea.

**Lehendakariak** bileraren edukia azaldu du, oro har:

*“Arratsaldeon eta eskerrik asko denoi gure deialdiari erantzuteagatik.*

*Kontseilu hau berriro ere deitu dugu gaur; Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako 2030 Plana duela lau hilabete onartu ondoren.*

*Aukeratutako unea egokia da:*

*-Alde batetik, pilotaje-taldeen emaitzak partekatuko ditugu.*

*-Bestetik, 2021garren urtearen erdian gaude, eta nahiz eta pandemiarekin bizitzen jarraitu, susperraldi sozioekonomikoak gero eta indar handiagoa du, txertaketaren eskutik.*

*Eraldaketa sakoneko testuinguruan gertatzen ari den susperraldia, trantsizio digital, ekologiko eta soziosanitario hirukoitzak bultzatuta dator.*

*Egoera horrek erronka garrantzitsuak dakartza berekin, eta aurre egin behar diegu erronka horiei. Baina, horrekin batera, aukera handiak ere baditugu; baliatu behar ditugunak.*

*Guztion onerako auzolana bultzatzen jarraitu behar dugu; Zientziaren, Teknologiaren eta Berrikuntzaren aldeko estrategia eta konpromisoa partekatuz.*

*Horrela bakarrik bermatu ahal izango dugu garapen inklusiboa eta iraunkorra gure artean.*

*Eskertzen dizuegu Kontseilu honetan parte hartzea, duela lau hilabete Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Plana 2030 berria onartu ondoren.*

*Aukeratutako unea egokia da, pandemia bidea erakusten ari baitzaigu:*

*- estrategia bat partekatzea;*

*- lehengoratzea bizkortzen laguntzea; eta*



## Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren akta

*- hiru eraldaketen –digitala, ekologikoa eta soziosanitarioa– erronka handiak aukera bihurtzea.*

*Herrialde gisa dugun helburua zera da, bizi-maila eta enpleguaren kalitatea hobetzea 2030ean Euskadi Europako eskualde aurreratuenen artean kokatuko duen berrikuntza-politika baten bidez.*

*Elkarrekin inbertitzen eta lan egiten badugu, Euskadin garapen ekonomiko eta sozial inklusiboa eta jasangarria bermatu ahalko dugu.*

*Oso positiboa da gure hasierako egoera.*

*Duela 15 egun, ekainaren 21ean, Europako Batzordeak «Regional Innovation Scoreboard 2021» txostena argitaratu zuen.*

*Europako eskualdeen artean berrikuntza handiko gisa kokatzen du Euskadi Txosten horrek, eta «eskualdeko bikaintasun-polo» gisa kalifikatzeaz gain.*

*Elkarrekin lan egitera bultzatzen gaituen lorpen bat da. Kanpo-aintzatespena da, azken urteotako ibilbidea baliozkotzen duena eta etapa berri honen hasieran egoera onean ipintzen gaituena.*

*Euskadi 2030erako Europako eskualde aurreratuenen artean kokatzeko asmo partekatuari eustera animatzen gaitu.*

*Jarraian, Cristina Uriarteri eman diot hitza, eta eskerrak eman nahi dizkiot etapa berri honetan egindako lanagatik.*

*Lehenik, bileraren gai-zerrenda aurkeztuko digu.*

*Jarraian, Plan berrian eman diren aurrerapenen laburpena aurkeztuko digu.*

*Azken atala amaitzean, eta azken ondorioak aurkeztu baino lehen, galderak eta eskaerak egiteko txanda izango dugu.*

*Cristina, zurea da hitza”.*

### **3. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Plana 2030. Cristina Uriarte.**

Ondoren, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako komisionatuak bileraren gai-zerrenda aurkeztu du, eta, horren ondoren, ZTBPre nortasun korporatibo berria aurkeztu du.

#### **Irudi Korporatibo Berria.**

ZTBP Euskadi 2030en marka edo irudi korporatiboa oinarritzko hiru kontzeptutan oinarrituta sortu da: berrikuntza, zientzia eta teknologia. Eta guztiaren oinarrian, pertsonak daude,



## Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren akta

talentua. Lotura, lankidetzeta eta auzolana irudikatzen dituen irudi dinamiko bat, Euskadik ere lurralde gisa transmititzen duen irudia, hain zuzen. 2030erako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Plan berriaren nortasuna da. Hurrengo 10 urteotan digitalago, berdeago eta inklusiboago izango den Euskadi batera eramango gaituzten siglak eta lokailuak. Plan berriaren goiburua edo *claim* gisa "Talentua garatuz, auzolana" aukeratu da.

Komisionatuak jakinarazi duenez, egindako logotipo eta lan-txantiloak guztiak edozein erakundek erabili ahalko ditu, eta jendaurrean jarriko dira ZTBP Euskadi 2030ren webgunearen bidez, zeina laster argitaratuko baita Eusko Jaurlaritzaren Lehendakariaren webean.

Azkenik, ZTBP Euskadi 2030en bideo berria eman da, plan hori ezagutzera emateko eta nola Euskadin hala atzerrian sustatzen laguntzeko. Hasieran, bideoa euskaraz eta gaztelaniaz egongo da eskuragarri.

### ZTBP 2030 hedatzea. 2021eko aurreikuspenak.

Cristina Uriarte komisionatuak ZTBP 2030 hedatzeko fase guztiak azaldu ditu:

- 1) 0. fasea (2019-2020). Lantzea:
  - 1- ZTBP Euskadi 2030en oinarri estrategiko eta ekonomikoak
  - 2- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Plana Euskadi 2030 (ZTBP)
- 2) 1. fasea (2021-2023). Onartzea eta abiaraztea:
  - 1- Plana onartzea eta ZTBK indartzea
  - 2- Plana jakinaraztea eta gizarteratzea
  - 3- Ekimen estrategikoak, nazioartekotzekoak eta azpiegitura zientifiko-teknologikoak bultzatzekoak identifikatzea.
  - 4- Pilotaje-taldearen osaera.
- 3) 2. fasea (2024-2027). Ebaluatzea eta sakontzea:
  - 1- ZTBP 2030en 1. fasea ebaluatzea
  - 2- Planaren helburuak berrikusi eta egokitzea
  - 3- Aldaketak txertatzea
- 4) 3. fasea (2028-2030). Ebaluazioa egitea eta plana burutzea:
  - 1- ZTBP 2030en 2. fasea ebaluatzea
  - 2- Planaren helburuak berrikusi eta egokitzea
  - 3- Aldaketak txertatzea.

Jarraian, Plana hedatzeko lehen hilabeteetan egindako jarduerak azaldu ditu komisionatuak. Gizarteratze eta hedapenari dagokienez, honako hauei aurkeztu zaie Plana: 2030 ZTBP Zientzia eta Berrikuntza Ministerioa eta IDI Sareko kideak, Bruselako kidego diplomatikoa eta Euskadiren Ordezkaritza, Eusko Legebiltzarra eta Bizkaiko Foru Aldundia, Gipuzkoako Foru



## Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren akta

Aldundia, ZTBESko eragileak (unibertsitateak, BERC, teknologia-zentroak eta IKZak –BRTA–), Innobasqueko erakunde bazkideak eta laguntzaileak, eta beste erakunde sozioekonomiko batzuk.

Cristina Uriartek, amaitzeko, Berrikuntza Funtzak orain arte finantzatu dituen ekimen estrategikoen, nazioartekotze-ekimenen eta azpiegitura zientifiko-teknologikoak bultzatzeko ekimenen xehetasunak eman ditu; zehazki, 5,3 milioi euro baino gehiago finantzatu dira:

- Ekimen estrategikoak (2,9M €): Basque Digital Innovation Hub; Windbox; Medtech; Elikadura Berrikuntzako Behatokia; ekoberrikuntzako proiektu erronkarien aktibazioa; alokairuko etxebizitza publikoak berregokitzeko Zero + Plana; Euskal Kultura eta Sorkuntza Barrutia; Euskadi Data & Blockchain; eta Zientzia eta teknologiaren gizarteratze eta hedapena.
- ZTBES nazioartekotzea (0,75M €): ZTBP 2030en lehentasunezko esparruetan Europako proiektuetan parte hartzeko finantza-laguntza ematea eta lankidetzarako mugaz gaidiko laborategien sare bat bultzatzea.
- Azpiegitura zientifiko-teknologikoak bultzatzea (1,7M €): BDIHren zerbitzuen eskaintza ZTBP 2030 planean jasotako lehentasunezko eremuetara egokitzea, AZPITEK programa indartuz; LINKER eta ERIC azpiegiturak, BREM eta bioEurolmaging nodoa sendotzea; eta medikuntza pertsonalizatua bultzatzea eta, horretarako, Novaseq 6000 sekuentziazio-sistema eskuratzea.

Lehendakaritzak kudeatzen duen funts hori Jaurlaritzaren sailek I+G+Ba babesteko beren programetan baliatzen dituzten partiden osagarria da.

### 4.- RIS3 pilotaje-taldeen aurrerapen nagusiak.

**Arantxa Tapiak: Industria adimenduna, Energia garbiagoak, Elikadura eta Ekoberrikuntza.**

Hitza hartu du Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuak, Arantza Tapiak, eta Fabrikazio Aurreratua, Energia eta Elikadura pilotaje-taldeen aurrerapenak aurkeztu ditu.

2021ean I+G+Brako egindako laguntza-deialdiak deskribatu ditu lehenik eta behin, eta, horri dagokionez, proposamen kopurua eta aurkeztutako aurrekontua nabarmen handitu direla nabarmendu du. ELKARTEK (40M €), batetik, aurkeztutako proiektuen kopurua % 15 handituta aurreko urtearekin alderatuz; eta bestetik, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko (ZTBES) eragileek aurkeztutako aurrekontuaren bolumena % 27 areagotuta. HAZITEK (96,3M €), aurkeztutako proiektuen kopurua eta aurrekontuaren bolumena % 10 handituta. Hazitek proiektu estrategikoen dirulaguntza



## Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren akta

honela banatu da: % 72 industria adimendunean, % 19 energia garbietan, eta % 7 osasun pertsonalizatuan.

Sailburuak, halaber, ekainean abiarazitako HAZINNOVA programa berria ere aipatu du, nola bitarteko ia 50 eragilek hala Innobasquek –Berrikuntzaren Euskal Agentziak– parte hartuta. 500 ETEetara iristea planteatu da. Berrikuntzari dagokionez ETEek egin beharreko lehen urratsa da.

### Industria adimenduna. Basque Industry 4.0 estrategia ZTBP 2030en esparruan.

Sailburuak jarraitu du azaltzen Basque Industry 4.0 Industria adimenduneko estrategia berri bat dela, pilotaje-taldeak 2020an eta 2021ean landutakoa. Arestian aipatutakoen bilakaera da. Ekoizpen-etapa osoan oinarritua, zerbitzu aurreratuak, jasangarritasunaren eta ekonomia zirkularraren erronka barne, eta Adimen Artifizialeko –AAko– teknologiak ere bilduta.

Estrategia hori hainbat kolektiborekin kontrastatu da: BRTA (Basque Research and Technology Alliance), 4GUNE klusterra eta klusterrak dinamizatzeko erakundeak.

Estrategiaren misioa garapen teknologikoa, berrikuntza, jasangarritasuna eta talentua bultzatzea da, euskal industriaren lehiakortasunaren eragile gisa eta, halaber, munduko negozio-hobi batzuetan lider gisa duen posizionamenduaren eragile gisa ere bai.

Funtsezko teknologia-arloak (ekoizpen jasangarria eta teknologia digitalak) 9 eremutan aplikatzen dira ekoizpenaren balio-katean zehar: material aurreratuak, karbono-aztarna; makina adimendunak eta konektatuak; datuan oinarritutako negozio-eredu eta zerbitzu berriak; produktu adimenduna; ekoizpen-prozesu jasangarriak; giza faktorea etorkizuneko fabriketan; etab.

Honako hauek dira Basque Industryren foku nagusiak: 1) I+G+Baren arloaren kalitatea nola handitu; 2) I+G+Baren arloko enpresa aktiboaren kopurua nola handitu; eta 3) inbertsio handiagoa nola mobilizatu. Horretarako, honako hauetan egingo da lan: trakzio-enpresen ahalmena nola aprobetxatu; epe luzeagorako lan-dinamikak nola sortu; eta dimentsio txikieneko ETEak nola mobilizatu.

Esparru berri bat da: legealdi berria, ZTBP 2030 berria, industria adimendunerako estrategia berria.

PTaren gobernantzari dagokionez, enpresa parte-hartzaileak berritu egin dira. Berrikuntza gisa, enpresa-ordezkaritza handiagoa dago (9), hainbat neurritako enprekin (handiak, ETEak eta *startup*ak); BRTA aliantzak ere parte hartzen du, zientzia- eta teknologia-alorreko bi adituz gain.



## Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren akta

Maiatzean bildu zen PTa, sartzen ari ziren parte-hartzaileak eta irteten ari zirenak bertan zirela. Ekainean eta uztailean aurkeztu zaio estrategia PT berriari, eta irailean berriro bilduko dira lan-lerroak zehaztuta eta lehenetsita uzteko.

Ekimen estrategikoa: Basque Digital Innovation Hub (BDIH). Jada ZTBESko 30 kidek baino gehiagok parte hartzen dute, eta 200 aktibo baino gehiago ekartzen dituzte enpresei zerbitzua emateko RIS3 eremuetan. Energiaren eta osasunaren arloetan bi nodo berri sartzeko eta BDIH Konexio programa bultzatzeko xedea lortzeko lanean ari gara. Europako Batzordearen Challenge Initiative saria jaso da, eta Ursula Von der Leyenek BDIH saria ETEen eraldaketa digitala babesteko baliabide ontzat aitortu du.

### Energia garbiagoak.

Sailburuak, lehenik eta behin, Energibasque Estrategia eguneratu dela azaldu du, eta 8 arlo estrategiko eta 5 teknologia erraztaile ezarri ditu. Nabarmendu du hidrogenoa indarrez sartu dela eremu estrategiko gisa.

Pilotaje-taldearen osaera aldatu da, bi enpresa sartu baitira: batetik, SOLARPACK trakzio-enpresa gisa; eta bestetik, SAITEC, energiaren arloko ETE enpresa gisa. Taldeak bi lehendakari ditu: batetik, Arantxa Tapia sailburua; bestetik, Jose Ignacio Hormaetxe Energia Klusterraren ordezkaria.

Gaur egun, hiru lantalde daude abian:

- 1) Energia eoliko flotatzailearen sektorearen garapena, 30 erakunderen parte-hartzearekin; Saitec da lantalde horretako liderra.
- 2) Haize-sorgailuen datuak partekatzea, 20 erakunderen parte-hartzearekin; Xabet da horren lider.
- 3) Sareko teknologia Global Smart Grids *hub*aren esparruan, 16 erakunderen parte-hartzearekin; Iberdrola da lantalde horren gidaria.
- 4) Hidrogenoa, 104 erakunderen parte-hartzearekin; Petronor da horren buru.
- 5) Olatuen energia, 28 erakunderen parte-hartzearekin; Idomek zuzentzen du talde hori.

Horrez gain, energiaren alorrean I+Ga nazioartekotzeko talde berri bat ere sortuko da. Talde berri horren helburua honako hau izango da: euskal energia-sektoreko enpresen I+Garen nazioartekotzea bultzatzea, I+G+Baren arloko Europako programen deialdietan parte-hartze handiagoa sustatuta (arreta berezia jarriz Horizon Europe –Europako Ikerketa eta Berrikuntzako Esparru Programa– berrian), ZTBESko eragileen eta esparru horretan esperientzia duten enpresen trakzio-efektuaren bidez.

2021 ekitaldirako ekintza-plana honako hau da:

- Energibasque strategiaren azken bertsioa ematea ZTBP 2030 planari, 2019ko berrikuspenari dagokionez behar diren eguneratzeak txertatuta, eta sektoreak 2020an



## Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren akta

izan duen bilakaera, abian diren ekimen estrategikoak eta ZTBP 2020 planaren oinarri estrategiko berriak ere kontuan hartuta.

- Abian eta zehazten ari diren ekimen estrategikoak zehaztu eta abiarazteko ataza osatzea, Next generation EU / Espainiako Gobernuaren Lehengoratzeko, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana delakoaren funtsak eskuratuz horien garapena bultzatu eta bizkortzeko aukera bilatuta.
- Trantsizio energetikoak euskal enpresa-sareari dakartzkion onurak zehaztea eta lehia-abantailen faktoreak identifikatzea.
- Basque Digital Innovation Hub (BDIH) delakoaren sare elektriko digitalen nodoa eratu eta erabiltzea.
- «Panorama 2020» txostena lantzea (2021eko bigarren seihilekoa).

Sailburuak pilotaje-taldean identifikatutako ekimen estrategikoen berrikuspena egin du, eta «Euskadiko trantsizio energetikoaren eragin ekonomiko eta sozialen» txostenaren emaitzen berri eman du. Horren helburua energia-sektorerako inbertsioak eta laguntza teknologikoak lehenestea komeni dela argudiatzea da, horien ondorio positiboetan oinarrituta, sektoreko eragileengan ez ezik, ekonomian eta gizarte osoan ere bai. Txosten horren arabera, Espainiako estatuan, Europan eta nazioartean energia-arloan aurreikusita dauden inbertsioetan oinarrituta, Euskadin inpaktu hau izango du horrek beharbada:

- Euskadiko ekonomiaren barne-produktu gordinaren igoera: % 7,5
- Enplegua sortzea Euskadin: 3.000 enplegu berri inguru
- Euskal energia-sektorearen fakturazio orokorra handitzea: 8.250 milioi euro
- I+G+Ba areagotzea energiaren esparruan: % 15,4
- Diru-bilketaren hazkundera euskal administrazio publikoan: % 10.

### Elikadura osasungarria.

Sailburuak lan-esparruaren strategiari eta egungo egoerari buruzko informazioa eman du.

Pandemiaren ondoren, elikadura-sektoreak eragina pairatu du; izan ere, egiturazko aldaketa batzuk bizkortu egin dira, eta ZTBP 2030 planean 2021-2025 aldirako zehaztutako lehentasunak berrikustea dakarte aldaketa horiek. Horretarako, honako hauek lantzen hasi gara:

- Elikadura osasungarriko eremu bertikal bat sortzea eta Basque Innovation Digital Hub fokuari esparruan sartzea. Elikadura-sistema berezia, segurua, jasangarria eta osasungarria garatzeko ekosistema bat izatea da horren jomuga.
- Lurraldeko elikadura-ekosisteman hiru trantsizioak txertatuko direla bermatzea: trantsizio teknologiko eta digitala; energia- eta ingurumen-trantsizioa; eta trantsizio demografiko eta soziala.



## Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren akta

- Joera eta aukera nagusiak identifikatzea sektoreko adituekin, nola tokikoekin hala nazioartekoekin.
- Behatokiaren bidez, sektoreko I+Ga eta berrikuntzaren egoera kontrolatzea, bai eta Sailburuordetzak kudeatzen dituen baliabideen emaitzak ere (programak, zerbitzuak eta eragileak), hobetu beharreko alderdiak identifikatzeaz gain, COVIDaren ondorengo egoera berriari erantzute aldera
- Enpresak dinamizatzea (ETEak eta mikroenpresak), berrikuntza-ekosisteman enpresa berriak sartzeko
- Gaiuntzarako eta gaitasun berriak garatzeko programak, enpresen premien eskakizun berrietara egokituak betiere. Existitzen denetik haratago joatea, gaurkoa egokitzea, gauza berriak sortzea, etab.
- Aukera-lurraldea, oro har, martxan jartzen diren trakzio-ekimenekin lerrotzea eta koordinatzea, batez ere egungo garaian, osasun eta zahartzearen alorrean eta ekonomia zirkularraren alorrean.

Hauk dira pilotaje-taldearen mendeko lantaldeak eta horien jardueraren irismena:

- 1) Elikagaien ekosistema seguruak, jasangarriak eta osasungarriak: Balio-kate sektorialeko proiektuak garatzea, elikagaien ekoizpenetik (*smartfarming*, *smartfishing*, *one-health*, etab.) kontsumitzaileetaraino.
- 2) Nutrizio pertsonalizatua: Gaixotasun kroniko ez-transmitigarriak dituzten biztanleentzat dietan esku hartzeko programak garatzeko teknologia omikoak ezartzea, osasunerako arriskuak murrizteko
- 3) Elikagai berriak eta proteina-iturri berriak zahartze osasungarrirako: Errezeta garbiagoetan oinarritutako soluzio berriak garatzea, osagai gutxiagorekin edo azukre, gatz, koipe eta bestelako osagaien murrizketa esanguratsuekin. Landare, fungi eta algetatik datozen proteina-iturri berriak sortzeko ekoizpen-prozesu berriak, bai eta animalia-jatorriko proteinen ekoizpen-metodo bioteknologiko berriak ere.
- 4) Balio-katearen digitalizazioa: Sentsore berrien integrazioa, IoT, Big Dataren kudeaketa eta adimen artifiziala elikagai-ekoizpenaren balio-kate osoan txertatzea, kontsumitzaileetaraino.

Eta 2021ean lortu beharreko mugarri nagusiak honako hauek dira:

- 1) Food Global Ecosystem. Food 4 Future (2021eko ekaina): Elikagaien eta edarien industriako profesionalen pentsatutako nazioarteko ekitaldia, sektorearen erronka handietarako balizko erantzunak aurkitzeko jomuga izan duena: teknologiaren bidez prozesuak nola optimizatu; negozio-eredu jasangarri eta eraginkorragoak nola garatu; eta elikagai eta osagai berriak ekoizteko joerak zein diren.



## Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren akta

- 2) ELIKADURA-BERRIKUNTZAKO BEHATOKIA: Euskal elikagai-sistemaren berrikuntza-politikak aztertzeko, neurtzeko eta bideratzeko helburua du. 2021eko urrian aurkeztuko da.

### Ekoberrikuntza.

Sailburuak deskribatu du ZTBP 2030en esparruan ekoberrikuntzako pilotaje-taldearen misioa birformulatu dela, eta euskal ekoberrikuntzaren analisisan, lehenespenean eta intentsitatearen hazkunderan lan egiteko helburu nagusia finkatu dela, lankidetza publiko-pribaturako modu berrien bidez. Horretarako, 4 helburu espezifiko hauek landu dira:

1. Joerak eta erronkak aztertzea, politika «berdeekin» lerrokatutako lehentasunak ezartzeko EAerako ekoberrikuntzan, enpresa-premien, ezagutza-gaitasunen eta gizarte-eraldaketaren arabera.
2. Ekoberrikuntza mugiaraztea eta aktibatzea lankidetza publiko-pribatutik, hautemandako aukerak transferituta.
3. Europako finantzaketa-baliabideak zehaztutako lehentasunak hedatzeko erabiltzea, gero eta eragile gehiago sartuta.
4. Pilotaje-taldearen jardueren eta emaitzen aurrerapena kontrolatzea, baita, orokorrean, Euskadiko ekoberrikuntzarena ere.

Lan horren ondoren, talde horren gobernantza birformulatu eta deskribatutako helburuekin lerrokatu da; horretarako, koordinazio-batzorde bat eta lau lantalde sortu dira, honako jomuga hauek dituztenak: LT1- Joerak eta Lehentasuna; LT2- Gaikuntza, Transferentzia eta Dinamizazioa; LT3- Nazioartekotzea eta Finantzaketa; eta LT4- Kontrola.

Lehen zirriborroak egin dira pilotaje-taldean, lehentasunezko eremuei buruz eztabaidatzeko, honako hauetan funtsatuta: jasangarritasunaren eta ekonomia zirkularraren arloan Europan eta EAEn dauden politiken analisia; balio-kate nagusietan egindako ingurumen-zaintza lehiakorra; eskari industrialak eta hark dituen premiak; merkatuko joerak; eta *benchmarking*, ekonomia zirkularrerako laguntza-programa nagusiekin. Azterketa horren eta ekoberrikuntzarako faktore motibatzaileen *driverren* ondorioz, erreferentziako hamar berrikuntza-eremu identifikatu dira. Eremu bi alderdi hauen arabera sailkatzen dira: produktura orientatuta egotea ( ekipamenduen, osagaien eta mugikortasunaren ekodiseinua; ontzien eta bilgarrien ekodiseinua; birmanufaktura eta konponketa aurreratua; serbituzazioa eta negozio-eredu zirkularrak); eta materialetara bideratuta egotea (teknika erabilgarri onenak; funtsezko metalak eta material kritikoak; plastikoa; mineralak eta eraikuntza-materialak). 2021eko deialdi honetan, «Lurraldea» lehentasunezko fokua lurzoru kutsatueterako teknologien eta klima-aldaketara egokitzearen lehentasunezko esparruekin integratu da.



## Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren akta

Eragile pribatuekin, eragile publikoekin eta ezagutza-eragileekin egindako analisiaren ondorioz, eta azken 7 urteotan euskal enpresekin garatutako 170 ekoberrikuntza-proiektu baino gehiagorekin egindako lanaren ondorioz, premia berriak detektatu dira. Horien ondorioz, ZTBP 2030 planaren esparruan eta Berrikuntza Funtzaren laguntzarekin, «Ekimen estrategiko berriak» garatu dira, «Ekoberrikuntza Proiektu Erronkariak Aktibatze» lerro experimental pilotu hori diseinatzeaz gain.

Helburua zera da, enpresa-aukera ekoberritzaile berriak zehaztea balio-katearen barnean Europako ingurumen-politikako baliabideek –driverrek– motibatuta dauden euskal kate-mailekin lankidetzan.

Epe luzera, laguntza-lerro horretan garatutako proposamenei negozio-aukera estrategiko ekoberritzaile garrantzitsu bat osatu beharko lukete (2030), bereizteko eta lankidetzan aritzeko ikuspegi batekin betiere. Horretarako, lehentasunezko 12 eremu identifikatu dira.

Sailburuak, mintzaldia amaitzeko, azken Kontseilutik ekoberrikuntza-arlo horretan izandako lau gertaera garrantzitsuak nabarmendu ditu:

- Basque Circular Hub berria aurkeztu eta abian jartzea, Bilboko Udalarekin, euskal unibertsitateekin, Tknika zentroarekin eta Novia Salcedo fundazioarekin lankidetzan. Espainiako estatuan eta Hego Europan ezaugarri horiek dituen zentro bakarra, merkatu-prospektibarako, prestakuntza aurreraturako, joera-analisirako eta ekonomia zirkularren esparruan ezagutza adituaren sorkuntzarako zerbitzuak eskaintzen dituena.
- Batetik, «Ekonomia Zirkularreko Ekoberrikuntza Programan» jasotako metalen, plastikoen eta mineralen ekodiseinu, birmanufaktura eta ekonomia zirkularerako 26 proiektu ekoberritzaile sustatzea; eta bestetik, euskal industrian ekodiseinuko, ekonomia zirkularreko frogapeneko eta ekoberrikuntzako proiektuak egiteko 2021erako laguntza-programa berria onartzea.
- EAEko 14 enpresarekin eta lhobe eta SPRI sozietate publikoekin batera, lankidetzan publiko-pribatuko itun berri bat sinatzea ekodiseinuari eta ekonomia zirkularri buruz, Basque Ecodesign Center deritzonari dagokionez.
- Ingurumen-aztarna korporatiboa aplikatzeko gidaliburu metodologiko berria aurkeztea. Gidaliburu horren helburua honako hau da: euskal enpresen eta bestelako erakundeen ingurumen-aztarna korporatiboa kalkulatzeko ahalik eta eraginkortasun handienez eta existitzen diren erreferentziako dokumentuei jarraikiz.

### Gotzone Sagardui: Osasun pertsonalizatua.

Sailburuak azalpena hasi du, eta azaldu du duela gutxi berri dela osasun pertsonalizatuko RIS3 pilotaje-taldea, ZTBP 2030 berriaren esparruan. Etapa berri honetan, osasun-arloko



## Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren akta

ikerketa eta berrikuntza areagotu nahi dira, pilotaje-taldearen dinamika baliatzeaz gain, zientziaren, teknologiaren eta enpresaren alorreko beste eragile batzuekin lankidetzan, estrategia berria garatzeko. «2021-2024ko Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko Estrategiaren» azken helburuak hau izaten jarraituko du: pertsonen osasun-arreta hobea ematea; alabaina, bi jomuga hauek ere izango ditu: lehenik, ikerketaren eta berrikuntzaren bidez osasun-alorreko industria-sare lehiakor bat bultzatzea; eta bigarrenik, hazkunde jasangarriaren bidean aurrera egitea.

Jarraian, pilotaje-talde berriaren osaera zehaztu du, eta adierazi du operatiboagoa izango dela, kide gutxiago izango dituela eta ez dela hain instituzionala izango. Osasun Sailak zuzenduko du, osasun-sistemako eragileen –hala nola Osakidetza eta EAEko institutu biosanitarioen– parte-hartze handiagoa izango du, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eta unibertsitateetako eragileekin batera, osasun-adituekin betiere. Gainera, eta lehen aldiz, sektorean esanguratsuak diren euskal enpresek ere esku hartuko dute, baita osasun-sektore pribatuak ere, lankidetzan publiko-pribatua are gehiago garatze aldera, ikerketan eta berrikuntzan ere bai.

Lau arlo tematiko nagusitan lan egitea planteatu da:

- Medikuntza pertsonalizatua eta terapia aurreratuak: Aurreko RIS3an, arlo horretan lan egin zen Onkologia, Medikuntza birsortzailea eta Gaixotasun kardiometabolikoak azpierzemuekin. Lan horren ondorioz, ibilbide-orri bat sortu zen, zeina etapa berri honetan baliatuko baita gai horri bultzada berezia emateko, osasun-laguntzako sistema hein handiagoan inplika dadin «medikuntza pertsonalizatuaren eta terapia aurreratuaren batzorde» sortu berriaren bidez.
- Osasun Digitala eta Big Data: Eraldaketa digitala, ZTBP 2030 berriaren ardatzetako bat, hainbat alderditatik landuko da, hala nola telemedikuntza, pazientearekiko interakzio handiagoa eta osasun-sistemako datuak lortzea, etorkizunean ikerketak egite aldera. Izan ere, aurreko RIS3an jada identifikatu zen hori lehentasun gisa.
- Baliabide medikoak. Arlo hori Osasun Digitaletik bereizi da, aurreko RIS3 estrategian zegoen bezala, autonomia eta intentsitate handiagoz lantzeko. Gailuetatik ez ezik, ekipamendu biomedikoetatik ere bai, euskal enpresak parte-hartze handiagoa izan dezan osasun-sisteman. Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak kudeatzen duen Basque Digital Innovation Hub (BDIH) delakoan osasun-nodo berri bat garatzen ari gara, Arantxa Tapia sailburuak esan duen bezala.
- Indarkeria eta Osasun Mentala. Neurozientzien alorreko ikerketan eta garapenean sakabanatze handia zegoela antzeman zuen RIS3 strategiako aurreko taldeak, eta orain, talde horren bidez, koordinatzen saiatuko gara. Orobat, orain arte behar adinako intentsitatez landu ez diren gaitan ere aurrera egingo da, hala nola osasun mentalean. Arlo hori lantzeko, lankidetzan egingo dugu lan inplikatuak hainbat erakunderekin, hala



## Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren akta

nola foru-aldundiekin; izan ere, foru-aldundiekiko lankidetzak handiagotzen ari gara, Sailean sortu berri den Zuzendaritza Soziosanitariotik.

Sailburuak zehaztu du talde horietan zeharkako oinarri hauek landuko direla: Mundu globalizatu eta oso arautu batean (halakoa da, izan ere, mundu biosanitarioa) enpresen hazkundea bultzatzeko negozio-ereduak; nazioartekotzea Euskadiren premia eta posizionamendu gisa; eta Prestakuntza, zeinak jarduera arautuko garapenak barne hartzen baititu unibertsitatearen eta lanbide-heziketaren esparruan, baita diseinu pertsonalizatuak ere behar zehatzei erantzuteko.

Ekimen estrategikoari dagokionez, Innosasan proposamena bultzatuko da, osasun-sistemaren leihatila bakar gisa, enpresei euren produktuak osasun-sisteman garatzen eta baliozkotzen/probatzen laguntzeko, eta Berrikuntza Funtsekin Medtech laguntzak areagotuko dira lankidetzak hori bultzatzeko.

Azkenik, zahartzearen arloan lan egiten jarraituko dugu, ZTBP 2030en zeharkako trakzio-ekimena baita. Bertan, Euskadi Erreferentziazko Leku (*reference site*) gisa aitortu zuen Zahartze Aktibo eta Osasungarriaren Alorreko Berrikuntzarako Europako Elkartea (EIPonAHA). Gainera, Euskadik ITHACA proiektu europarrean izandako parte-hartzeari esker, zahartzearen alorrean diharduten erakunde guztiek aukera izan dute lantalde batean batzeko, esparru horretan I+Garen lerroak lehenesteko jomugan lan egin duen lantalde batean, hain zuzen.

### Iñaki Arriola: **Hiri jasangarriak.**

Sailburuak, hasteko, azaldu du «hiri jasangarriak» pilotaje-taldearen barruan estrategia orokor bat eta ekimen estrategiko koordinatu eta osagarri bat daudela, eta modu independentean kudeatzen direla bi horiek.

Batetik, Hiri Jasangarriak 2030 Estrategia (CiSo30), «Dinamizaziorako eta berrikuntza bultzatzeko plana Euskadiko hiri jasangarrien esparruan», Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Zuzendaritzak sustatua eta EHUko CAVIAR ikerketa-taldeak dinamizatua; eta, bestetik, Zero Co2 plus ekimena, Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitektura Zuzendaritzak bultzatua eta Alokabideak koordinatua.

CiSo30 Estrategia honako hauen babesean garatzen da: Euskadiko Hiri Agenda Bultzatu 2050 eta 2017-2020 Lurralde Esku Hartze Plan Integratua, garapen jasangarriko hiri-berroneratze integralerako. Helburu espezifikoak hiri jasangarrien eremuan berrikuntza adimentsua bultzatzea da, eta, horretarako, trakzio-gaitasuna eta gaitasun biltzailea duten lan-lerroak indartzea. Lerro horiek 2020an zehar garatutako prospektiba-lan baten bidez zehaztu dira.

Halaber, lotura estua sortu nahi da OpenGela programarekin eta Berreraikuntzarako Europako Funtsekin (NextGeneration) abian jarriko diren proiektuekin, eskuratutako ezagutza



## Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren akta

kontrastatu, baliozkotu eta abiarazi dadin ekintza frogatzaileetan, ezagutza merkatura zuzenean transferituta.

Estrategian zehaztutako lerroak eremu zabal eta konplexuei dagozkie. Hiru trantsizio handiek eragiten diete horiei guztiei, eta, aldi berean, inpaktua izan dezakete helburu orokorrekin: deskarbonizazioa, klima-aldaketara egokitzea eta horien efektuak arintzea, hiri-erresilientzia, efizientzia eta autonomia energetikoa, eta hiri-ingurunearen hobekuntza.

Hauak dira ahalmen berritzaile handiena duten 3 lan-lerroak:

- o L1. Hiri-mugikortasun berria eta hiri-ingurunean energia berriztagarriak txertatzea
- o L2. Birnaturalizazioa eta hiri-azpiegitura berdea
- o L3. Ekonomia zirkularra eta arkitektura jasangarria hiriaren eraikuntzan

Modu osagarrian, laugarren lan-lerro bat zehaztu da:

- o L4. Prospektiba, nazioarteko sareetan murgiltzea eta transferentzia, aurrekoei babesa emateko eta Saila gai horietan puntakoak diren nazioarteko sareetan kokatzeko helburua duena.

Ekonomia-esparruko gaiak, digitalizazioa, gizarte-kohesioa, generoa eta jasangarritasuna modu transbertsalean txertatzen dira horietan guztietan.

Lana 3 mailatan egituratzen da:

- Lehenengoa prospektiba-taldea da, zeina zaintza eta prospektiba aztertzeaz arduratzen baita batetik, eta pilotaje-taldea eta lantaldeak dinamizatzeaz eta antolatzeaz bestetik.
- Bigarrena pilotaje-taldea da, estrategia zehazten eta erabakiak hartzen dituena, nagusiki. Aldi berean, talde espezifikoek lana bateratzen da.
- Azkenik, lantaldeak lan-lerroak garatzeaz arduratzen dira. Talde horretan pilotaje-taldetik kanpoko adituek ere parte har dezakete.

Prozesuaren dinamismoa eta eraginkortasuna ziurtatzeko, talde guztiek idazkari tekniko bat dute, eta idazkari teknikoa arduratuko da, hain zuzen, prozesua dinamizatzeaz eta Sailaren beste ekimen batzuekin koordinatzeaz.

Pilotaje-taldeak Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko 6 kluster eta 4 erakunderen parte-hartzea du, bai eta bi sailburuordetzeko (Lurralde Plangintza eta Hiri Agenda eta Etxebizitza) ordezkariena ere.

Lan-prozesua abian da jada. Helburua 2022an lantalde bakoitzeko kasu pilotu bat martxan jartzea da.

Zero plus ekimen estrategikoak aurreko ZTBP planean garatutako lanean sakontzen du, Nzeb ekimen estrategikoaren bidez, zeinak Zero Planari bide eman baitzion. Ibilbide-orri oso bat da

## Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren akta

Zero Plana, alokairuko parke publikoa energia-kontsumo nuluko eta zero isurketako parke bihurtzeko.

Amaitzeko, sailburuak azaldu du Zero Plus ekimen berri horren bidez eraikinen kudeaketa digitala eta pertsonen lagun-egite soziala indartu nahi direla, baita kontsumo nulua eta CO<sub>2</sub> isurien murrizketa lortzeko jomuga izango duten tamaina handiko bizitegi-parkeak birgaitzeko eta prest jartzeko prozesuen dimentsio kudeatzailea eta juridikoa ere.

### Bingen Zupiria: Euskadi Sortzailea.

Sailburuak, hasteko, jakinarazi du duela bi aste Kultura eta Sormen Industrien (KSI) pilotajetaldia (RIS3 Euskadi Sortzailea) taxutu zela.

Horren ondoren, talde horrek ZTBP planaren esparruan gaur egun garatzen dituen lan- eta ikerketa-lerroak deskribatu ditu:

- Basque District of Culture and Creativity (BDCC), Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailarekin batera sustatua, Euskadiko kultura- eta sormen-industriak gaitzen eta garatzen dituen eta horiei laguntzen dien gunea da, sektorearen lehiakortasuna eta indartze ekonomikoa sustatzeaz gain. Datorren uztailaren 8an aurkeztuko da Bilbon. BDCC izango da RIS3 Euskadi Sortzailea koordinatuko duen lehen lantaldea.
- Bigarren lantaldeak I+G+Ba kontzeptualizatzea eta neurtzea izango du ardatz, KSlen esparruan betiere. Emaitzak 2021eko azaroan aurkeztuko dira Bilbon. Taldearen helburua KSlen eremuan I+G+Baren gidaliburu-proposamen bat diseinatzea da, eta geroago, Europako hainbat eskualdetan aplikatutako mailan kontrastatuko litzateke hori.
- KSIGune Unibertsitateko Klusterrak –Hezkuntza Sailarekin batera garatuak– unibertsitate eta enpresentzako gunea bat izan nahi du, non ikerketa, nazioartekotze eta gaikuntza edo prestakuntzarako programak garatuko bailirateke. Proiektu hori joan den uztailaren 1ean aurkeztu zen Tabakaleran, eta lan-lerro berri bat da, KSlen ezagutza-poloan garatutako analisi osotik sortua. Aurreko lankidetzaren ondorioz sortu zen unibertsitate-sistemaren gaitasun-mapa.
- Hirugarren –eta azken– lantaldea elikaduraren sektorearekin gauzatzeko *Cross fertilization* deritzonari buruzkoa da. Egindako lana 2021ean amaituko da, enpresa-*networking*eko ekitaldi batekin. 2022-2024 denbora-tartean, beste eremu batzuekin hibridatzeko prozesuekin jarraituko da, bai eta zahartze aktiboko trakzio-taldearen parte izaten ere.
- Garatutako beste lan-lerro garrantzitsuetako bat KSItik da. KSlen trantsizio digitalerako laguntzen deialdia da. Duela gutxi, enpresei zuzendutako lehenengo deialdiaren emaitzak argitaratu dira, eta 2021ean zeharkako proiektuak dituzten elkarteei zuzenduta deialdi bat dago irekita gaur egun. Urtekoa izan dadin nahi da.



## Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren akta

- New Bauhaus Europako apusturik garrantzitsuenetakoa bat da hurrengo lau urteetarako, eta hainbat sektore hartuko ditu eraginpean, ez soilik kultura. Tabakaleraren, Euskadik Bruselan duen Ordezkaritzaren, Conexiones Improbables plataformaren eta Bilbao Metr poli-30 elkartearen arteko koordinazioa erraztu du Sailak, 2021eko maiatzean Euskadi mailako esperientziak eta proposamenak partekatzeko jardunaldi baten bidez, zeina udazkenean berriro egingo baita.

### Euskal Kultura eta Sorkuntza Barrutia (BDCC- Basque District of Culture and Creativity).

Sailburuak deskribatu du KS-lak enpresen %9,8 eta enpleguaren %5,3 direla Euskadin, Kulturaren Euskal Behatokiak 2019an egindako azterlan baten arabera. Sektorearekin AMIA egin ondoren, KS-lei aplikatutako politiken eredia programa-eredu batetik zerbitzu-eredu batera aldatzea erabaki eta BDCC sortu zen.

BDCC (Basque District of Culture and Creativity) KS-letakoa enpresa eta profesionalen ekintzailentzarako, berrikuntzarako eta lehiakortasunaren hobekuntzarako prozesuetan laguntzen dien gunea da, lurraldeko KS-len sektorea indartzen eta trinkotzen duena. Lau geruzatan antolatutako zerbitzu-eredu bat da, webguneak enpresei eskainiko dizkien baliabideetatik laguntza pertsonalizaturaino doana.

Amaitzeko, sailburuak esan du barrutiaren hurrengo urteetarako estrategian lau palanka hauen alde egingo dela: egituratzea, laguntzea, elkarrekin sortzea eta globalizatzea.

### 5. Jokin Bildarratz: Zientzia- eta unibertsitate-ikerketa.

2021eko lehen seihilekoan Euskadiko zientzia-esparruan egindako lanarekin lotutako berrikuntzarik nabarmenenen berri eman du Hezkuntzako sailburuak. Sailburuak, bere aurkezpenean, funtsezko 4 lan-arloak laburbildu ditu:

- IKUR estrategia aktibatzea eta jendaurrean aurkeztea, baita funtsezko helburuak eta aurreikusitako inpaktu soziala ere. Aurreikusitako eraginari dagokionez, honako mugarri hauetan laburbiltzen da: 100 milioi euroko inbertsioa 2030era arte; 282 milioi zuzeneko eta zeharkako inbertsio induzitu gisa; 400 ikertzaile-lanpostu sortzea; induzitutako 4.000 argitalpen zientifiko; 30 EPO patente eta IKUR oinarri zientifikoko 20 enpresa sortzea eta 3.200 lanpostu eratzea.
- Ikerbasqueren plan estrategiko berria, 2021-2024 aldirako, eta aurreikusitako inpaktu soziala. Honako hauek dira figura nagusiak: 100 Ikerbasque kontratu berri; 400 Ikerbasque ikertzaile 2024an; ZTBESren 25 eragile hartzaile; 89M euroko inbertsioa talentuan eta 30M eurokoa proiektu osagarrietan; 1.000 ikerketa-proiektu gehigarri; 6.000 argitalpen gehigarri; artikuluen % 50 munduko *top 10* sailkapenean; 150M euroko itzulkina; 1.500

## Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren akta

pertsona Ikerbasque taldeetan integratzea; Ikerbasque oinarriko 25 enpresa eta erantzukizun korporatiboko 20 enpresa erakartzea.

- Euskadiko bikaintasun-ikerketarako ekipamendu zientifikorako programen lehen mapa aurkeztea. Mapak bikaintasun-ikerketarako ekipamendu zientifikoa eskuratzeko jomuga duten hiru programa osagarriren ikuspegi integral bat erakusten du, zientzia-sisteman duten inpaktua kontuan hartuta: sisteman inpaktu handia duten azpiegitura zientifiko berezi handiak hornitzeko LINKER programa (600.000 € baino gehiago); azpiegitura zientifiko handiekin lotzeko bitarteko ekipamendu zientifikorako programa (240.000-600.000 tarte); eta eguneratzeko edota azpiegitura txikirako ekipamendu-proposamenak erosteko ekipamendu zientifikorako programa (240.000 € gehienez).
- Euskampusen bultzatutako Euskadi-Akitania Berria Mugaz Gaindiko Laborategien Sarearen (ENA) aurkezpena; sare horrek laborategi bateratuak biltzen ditu Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa euroeskualdearen testuinguruan. Gaur egun, sareak 4 laborategi ditu kimika-fisikaren, *green concrete* delakoaren (hormigoi biologikoa), matematika aplikatuaren eta ekodiseinuaren esparruetan. ZTBESko eragileen (EHU, DIPIC, MPC, BCAM eta Tecnalia) eta Akitania Berriko eragile zientifiko (Bordeleko Unibertsitatea eta Centre national de la recherche scientifique erakundeko hainbat ikerketa-institutu) arteko lankidetzan du funtsa sare horrek. Sareak epe ertainerako ikuspegia du, laborategiak indartzeko, eta, horretarako, agenda zientifikoak bultzatzen ditu, baterako ekipamendua erostez eta ikertzaile partekatuak kontratatzeaz gain. ENA mugaz gaindiko laborategien sarea ZTBP 2030 planaren oinarri eta helburuekin lerrokatuta dago.

### 6. Jordi Campas: Euskadi NEXT.

Europako Ekonomia eta Funtsen sailburuordeak «España Puede: Plan de Recuperación, Transformación y resiliencia» (PRTR) delakoaren ezaugarri nagusiak laburbildu ditu bere mintzaldiaren hasieran. Funtsen % 50 Espainiako estatuak kudeatuko ditu, batez ere, lizitazioen, erosketen publikoaren, teknologia berritzailearen erosketen publikoaren eta norgehiagoka-deialdien bidez. Gainerako % 50a autonomia-erkidegoek eta toki-erakundeek kudeatuko dute, Espainiako estatuaren mekanismo mota berbera baliatuta. Funtsen kudeatzailea gorabehera, Euskadira administrazio publikoek, enpresek, teknologia-zentroek, unibertsitateek, hirugarren sektoreko eragileek eta abarrek gauzatu beharreko inbertsio eta jardueretarako funtsak iritsiko dira. Horietako batzuk Euskadi Next Programan jasota daude, baina ez denak.

Gure helburua honako hau da: funts gehienak Euskadi Next Programan jasotako inbertsioetara bideratzea; izan ere, interes handiko adierazpen gisa dihardu arestian aipatutako programak, Espainiako Gobernuak presidenteak 2020/07/31ko presidenteen konferentzian egindako eskaerari erantzunez; konferentzia hartan, autonomia-erkidegoetako presidenteei Lehengoratzeko eta Erresilientziako Mekanismo funtsekin gauzatzeko inbertsio-proiektuak eskatu zitzaizkien.



## Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren akta

PRTR planeko funtsak lehia-konkurrentziako deialdien, Euskadiri kohesio-irizpideei jarraikiz egindako transferentzien eta gure lehentasunekin beti lerrokatuta ez dauden kudeaketa-mandatu gisa egindako transferentzien bidez kudeatuko dira. Gaur egungo lehentasuna lehengoratzea da.

Euskadi Next programan lehentasuna eman nahi diegu lehia-konkurrentziako deialdiei eta Euskadiri egindako transferentzien artean barne-produktu gordin potentziala handitzera bideratutakoei, eta ez hainbeste galdutako barne-produktu gordina berreskuratzera bideratutakoei eta gure indarguneak sustatzeko Euskadiri egindako transferentziak.

RIS3 estrategiarekin modu koherentean diseinatu da Euskadi Next; nabarmentzekoa da DG Regio-tik sustatu dela RIS3 estrategia, egitura-funtsen erabileraren esparruan, nagusiki, Europako Eskualde Garapenerako Funtsa baliatuta, 2014-2020 urte anitzeko finantza-esparrutik. Hautatutako espezializazio-eremu jakin batzuk lehenetsi ditugu, horietan baititugu enpresa, teknologia eta zientziaren alorreko gaitasun handienak, eta horietan baitaude, hain zuzen, hiru trantsizioekin (teknologiko eta digitala; ekologiko eta ingurumenekoa; eta sozial eta sanitarioa) lerrokatutako merkatu-aukera handienak. Gure indarguneak sendotzen eta aukerak aprobetxatzen jarraitu nahi dugu, ZTBP 2030 planean jasotako RIS3 strategiaren esparruan egin izan dugun bezala.

Lau dira Euskadi Next strategiaren esku-hartze mailak: 1) Estatuko Lehengoratze eta Eraldaketa Ekonomikorako Proiektu Estrategikoetarako (LEEPE) lagungarriak diren proiektuak; 2) LEEPE filosofia duten baina Estatuko LEEPErik lotuta ez duten Euskadiko RIS3 estrategian bildutako espezializazio-arloetan laguntzen duten proiektuak; 3) Dirulaguntzetarako deialdiak, partaidetza-maileguak, kapitala, etab.; eta 4) Lizitazioak, erosketak publikoak eta teknologia berritzailearen erosketak.

Amaitzeko, Jordi Campásek PRTRren 17. osagaiaren baliabideak eta lan-lerroak deskribatu ditu, «Erakundeen erreforma eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Sistema Nazionalaren gaitasunak indartzea» dagokiona, 3.380 milioi euro dituenak aldi osorako.

### 7. Bileraren laburpena eta Erabakiak.

**Lehendakaria** bileraren nondik norakoak laburbiltzen hasi da:

*“Eskerrik asko denoi.*

*Joan den otsailaren 23an, Ikerketari, Garapenari eta Berrikuntzari laguntzeko politika publikoen arloan hurrengo 10 urteetan jarraitu beharreko estrategia ezartzen duen Plan berria onartu genuen.*

*Partekatzen dugun helburua ongizatea eta enpleguaren kalitatea hobetzea da. Hori lortzeko, argi dugu Berrikuntza giltzarria dela. Bide horretan, Euskadi 2030erako Europako eskualde aurreratuenen artean kokatzea nahi dugu.*

## Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren akta

*Hau da bidearen amaieran jarri dugun helmuga.*

*Gure abiapuntua ona da.*

*Europako Batzordeak Europako Berrikuntza handiko Eskualdeen artean gaudela esan du.*

*Kanpo-aintzatespen horrek akuilu gisa erabili behar dugu, Europarekin alderatuta ditugun ahulezietan hobetzen jarraitzeko.*

*Berrikuntzak garrantzi estrategikoa du Euskadin, eta ideia hori indartzen laguntzea dagokigu.*

*Nortasun Korporatiboaren Eskuliburu bat dugu, baita Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskadi 2030 Euskadin eta kanpoan jakinarazten eta zabaltzen lagunduko diguten material batzuk ere.*

*Pilotaje-taldeak bilakarazteko eta haien gobernantza hobetzeko egin den lana dugu.*

*Enpresa-sarearen gero eta konpromiso handiagoa dugu, batez ere enpresa txiki eta ertainei dagokienez.*

*Instituzio publiko guztien gero eta konpromiso eta inbertsio handiagoa dugu.*

*Euskal zientzia-sistema bikaintasun-ikerketari eta -talentuari dagokienez egiten ari den aurrerapenak ditugu, hein handiagoan ezagutzan oinarrituta egongo den ekonomia bat finkatzen laguntzen dugu hala.*

*Euskadi Next 2026 Programa ere badugu, gure RIS3 Espezializazio Adimentsurako Estrategiarekin lerrokatuta dagoena eta eraldaketa ekonomikoaren alde egiten duena.*

*Horiek dira Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseilu honetan biltzen diren indarguneak.*

*Nire hitzaldia hasierako mezu berarekin amaituko dut.*

*Une kritikoan gaude, pandemiaren garaian, suspertzeko eta krisitik irtetzeko prozesuaren hasieran gaude.*

*Trantsizio teknologiko-digitala, energetiko-ekologikoa eta sozio-sanitarioa bultzatu behar ditugu.*

*Eraldaketa sakona dugu aurrez aurre, erronka garrantzitsua eta aukera handiak eskaintzen diguna.*

*Agertoki global berrian, auzolana da gure erantzuna eta, baita ere, gure erantzukizuna.”*



## Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren akta

Kontseiluaren erabakiak aurkeztu aurretik, **lehendakariak** galdetu du ea bertaratutakoren batek balorazio edo ekarpenen bat egin nahi duen.

Horren ondoren, **lehendakariak**, bileraren laburpen gisa, honako **ondorio** hauek aurkeztu dizkio Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluari, kontuan har ditzan:

**Lehena:** Oso positiboki baloratzea Europako Batzordeak Euskadiri eman dion 'Bikaintasun Polo' kalifikazioa, berrikuntza handiko Europako eskualdeen artean kokatzen baitu gure lurraldea.

**Bigarrena:** Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Plana Euskadi 2030 hedatzeko lana indartzea, planaren helburuak ez ezik, ikerketak eta berrikuntzak euskal gizartearen erronkak konpontzeko jomugari egiten dioten ekarpena ere azpimarratuta.

**Hirugarrena:** Pilotaje-talde guztiek RIS3 Euskadi estrategiaren bilakaeraren ondoriozko erronka eta aukera berrietara egokitzeko eta haren gobernantza hobetzeko egindako ahalegina nabarmentzea.

**Laugarrena:** Euskal Zientzia Sistema bikaintasun-ikerketarako eta -talenturako izaten ari den aurrerakada baloratzea, herrialdearen erronkak eta Euskadiren nazioarteko posizionamendua lortzen laguntzen baitu.

**Bosgarrena:** Euskadi Next eraldaketa sozial eta ekonomikorako proiektuen garapenaren aldeko apustua nabarmentzea, proiektu horiek RIS3 Espezializazio Adimentsurako Estrategiarekin lerrokatuta egonik.

**Seigarrena:** Baterako lana, erakundeen arteko erantzukizuna, lankidetzeta publiko-pribatua eta eragile eta plan estrategiko guztiak lerrokatuta egotea garrantzitsua dela nabarmentzea, ikerketaren eta berrikuntzaren aldeko konpromisoaren harturik betiere.

## Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren akta

### 8. Galde-eskeak

Ez da galde-eskerik egon.

Beste gairik gabe, bilera amaitutzat jo dute.



**Cristina Uriarte Toledo**

**ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZARAKO KOMISIONATUA**